



Aiztondoko kirol anitzeko gunea berritzea

Oscar Mendo jarduera fisikoko eta kiroletako zinegotziak adierazi duenez, "Aiztondoko kirol anitzeko gunean hobekuntza lanen lehen fasea amaitu da".

"Hain zuzen ere, kirol anitzeko pistako belar artifizialeko soropila ordezkatu dute, eta eremu horretako araudia eta ordutegiak adierazten dituen kartela jarri dute", nabarmendu du Mendok.

Egindako lanak 9.367,58 eurokoak izan dira guztira, eta bi enpresaren bidez egin dira: Agapito Urban Industries S.L. (belar artifizialeko soropila ordezkatzeari) eta Garra S.L. (informazio-kartela).

Laster, "hurrengo fase batean, frontoi anitzak konpontzea eta margotzea aurreikusten da", amaitu du Mendok.

Andoain, 2021eko ekainak 8

Renovación de la zona multideportiva de Aiztondo

El concejal de actividad física y deportes Oscar Mendo, ha indicado que "la primera fase de los trabajos de mejora en la zona multideportiva de Aiztondo ha finalizado".

"En concreto se ha sustituido el césped de hierba artificial de la pista multideportiva y se ha colocado un cartel indicativo de la normativa y horarios de uso de la zona", ha destacado Mendo.

Los trabajos realizados han ascendido a un importe total de 9.367,58 euros y se han realizado a través de dos empresas: Agapito Urban Industries S.L (sustitución del césped de hierba artificial) y Garra S.L (cartel informativo).

Proximamente, "en una posterior fase se prevé la reparación y pintado de los multifrontones de la zona", ha concluido Mendo.

Andoain, 8 de junio de 2021